



Urretxuko udala



## SANTA LUTZI FERIA 2017 ARAUDI OROKORRA

**1.-Eguna:** 2017ko abenduaren 13

**2.-Lekua:** Hainbat gune prestatuko dituzte antolatzaileek, eta produktuen arabera sailkatuko dituzte postuak. Antolatzaileak beraiek arduratuko dira salmenta postuak jartzeaz, Gernikako arbola plazan eta Iparragirre kalean. Abenida eta Areizaga-Kalebarreneko postuak erakuslee beraiek ekarri beharko dituzte eta ezinbestekoa da postu estaliak izatea. Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari haren kokapena.

**3.-Ordutegia:** postuak eta salmentarako produktuak goizeko 9:00etarako jarrita egon beharko dute Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari zein ordutan sartu daiteken bere kokapenera. Ezingo dira postuak 15:00ak baino lehenago jaso.

**4.-Izen-ematea:** 2017ko urriaren 11tik azaroaren 3 arte

**5.-Izena emateko behar diren agiriak:**

-Instantzia ofizial batetan:

- Eskatzailearen datu pertsonalak: izen-abizenak, NA, helbidea, emaila eta telefona.
- Salgai ipinitako produktuaren izena eta tipologia.
- Produktuaren kalitatearen eta jatorriaren bereizgarria (izanez gero).
- Produktuaren osasun-erregistroaren zenbakia (gizakiak kontsumitzeko elikagaiak direnean).
- Nekazaritza ustiapenerako txartela, fruta, apaindura-landare eta barazkien salmentaren kasuan (fruta edo barazki sariketako partehertzaileek, kontu korrontearen zenbakia adierazi)
- Janari-manipulatzailearen karneta (ontziratutako gabeko elikagaien kasuan).
- Jarduera ekonomikoen zergan alta hartuta egotea.
- Gizarte Segurantzaren araubidean alta hartuta egotea eta kuota ordainduta edukitzea.
- Elikagai ekoizleen kasuan salmentarako beharko dituzten metro kopurua
- Artisauen eta beste produktuen kasuan postu estali propioa duten edo ez eta haren neurriak, mostradore neurria zehaztuz.
- Eskatzailearen ordezkari autorizatuta egon daitezkeen pertsonen identifikaziorako dokumentazio baliagarria.
- Ibilgailuan salmenta bada: ibilgailuaren zirkulazio baimena, erabiltzailearen gida baimena eta I.A.T.a gaindituta duenaren agiria.

-Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Irakurri ezin diren dokumentuak aurkezten dituzten eskaerak ez dira tramitatuko.



Urretxuko udala



#### **6.-Aukeratzeko irizpideak:**

- Ekoizle-saltzaileen jatorria: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta abarretako ekoizleei emango zaie lehentasuna, hurrenkera horretan bertan.
- Produktuen tipologia: bertako produktu desberdinak erakusteari emango zaio lehentasuna.
- Produktuen egiteko modua: artisau-produktuak lehenetsiko dira produktu komertzialen aldean.
- Ferian parte hartzaile gisa duten antzintasuna: aurreko aldietan feriara bertaratu direnek izango dute lehentasuna.

Antolatzaileek irizpide horiek kontuan hartuta egingo dute eskabideen arteko aukeraketa, eta ferian parte hartuko dutenei aldeztu aurretik jakinaraziko diete.

#### **7.-Baimena eskuratzeko baldintzak:**

- Dagokion prezio publikoa ordaintzea eskuratutako postuaren komunikazioan adieraziko den epean.

**19,25€ metroko edo zatiko egunean**

**76,50€ postuan ibilgailua, egunean**

- Feria egunean, saltzaileak dagokien postuan kokatzeko ardura dutenei baimena erakustea.
- Feriara eramateko baimendutako produktu hori bakarrik saldu ahal izango du eskatzaileak.

#### **8.-Tasa/prezio publikoa ordaitzearen salbuespenak:**

Aldez aurretik salbuespena eskatzen bada, eskualdeko artisau eta ekoizleen salmenta postuak salbuetsita egongo dira. Udal interesekoa diren talde kultural, kirol edo sozialek salbuetsita egongo dira etalkastetxeek, beraien jardueraren finantziatorako jartzen dutenean, salbuetsita egongo dira.